- Kiroldegia isolatzea.
- Aulki eta mahai akastunei babesgarriak ipintzea.
- Ikastegian sentikortze kanpaina egitea.



Ikastetxetik at

- Leiho bikoitzak ipintzea.
- Ikastetxera bizikletaz edo garraio publikoan joatea.
- Barrera akustiko ezberdinen ondorei buruzko simulazioak egin eta haiek ikastegian instalatzeko aukerak aztertzea.
- Berdeguneak ugaritu, bereziki jolastokiko zuhaitzak: zarata murrizten ez badute ere, beraren sorburua estaltzen dutenez, laxagarriak dira begietarako.
- Udalarari inguruko trafikoa murriztu eta ibilgailuen abiadura moteltzeko neurriak proposatzea.



ZENBAIT LAGUNTZA

UDALEK badituzte ikastegietako zaratak neurtzeko erabil daitezkeen sonometroak. Batzuetan, eskolako zarata arazoak aztertzen lagundu eta beraiek konpontzeko neurriak proposatzen dituen zerbitzu tekniko bat ere izaten da.

CEIDAK ere baditu ikastegiei uzteko sonometroak.



Hotsak bereizteko jolasak



HELBURUAK

- Haurren inguruneko ohiko soinuetan atseginak eta desatseginak bereiztea.
- Zarataren jite subjektiboa ulertzea.

MATERIALAK

- ◆ Hotsak bereizteko jokoak (*).
- ◆ Laminak.
- ◆ Kasetea eta zintak.

Joko hauek eguneroko egoerak irudikatzen dituzten laminak biltzen dituzte. Lamina bakoitzari dagozkion hotsak grabaturiko zinta bat ere bada.

Zinta entzun behar dute laminari begiratu bitartean, eta soinu bakoitza bere sorburuari lotu.


Hotsak bereizteko jolasa egin ondoren, honako jarduera osagarriak ere egin daitezke taldean:

- Laminari begira zinta entzun, eta zein soinu gustatzen zaigun eta zein ez esango dugu.
- Soinu berak gustatzen al zaizkigu guztioi? Zergatik ez gatoz bat horretan?
- Guztion artean, soinu desatsegin gehien irudikatzen duen lamina aukeratu dugu, eta bertan agertzen diren pertsonak, haiek saihestu edo murrizteko, zer egin lezaketen zehaztuko dugu.



(*) Joko horietako batzuk

- ◆ *Loto de situations sonores*. Nathan. Paris, 1992 edo
- ◆ *Lotería de ambientes sonoros* La Guaira. Barcelona, 1984. (CEIDAn eska daitezke).



Karaokea antolatzen

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.

MATERIALAK

- ◆ Hotsak bereizteko jokoak.
- ◆ Laminak.
- ◆ Kasetea eta zintak.
- ◆ Zapi bat.
- ◆ Proiektorea eta diapositibak.

1. Euren zarata eta soinuengatik erraz ezagut daitezkeen tokien diapositibak edo marrazkiak presatuko ditugu (Haur Hezkuntzarako gomendatutako jokoetako laminak erabil ditzakegu). Ikasleekin batera, haietako bakoitzari dagozkion zarata eta soinuak identifikatuko ditugu eta, banan-banan, imitatu egingo ditugu guztion artean. Geroago, parte-hartzaileen artean banatuko ditugu imitatu beharreko zaratak.
2. Banan-banan aurkeztuko ditugu diapositibak edo laminak. Parte-hartzaile bakoitzak hots-paisaia osatzen duten zarata eta soinuei behatu beharko die eta, taldeka, imitatzen saiatuko gara.
3. Ikasle talde bati —lau ikaslekoa, esaterako— ikasgelatik irtetea eskatuko diogu, eta gainerakook imitatuko dugun lamina aukeratu dugu. Ondoren, banan-banan sar daitezten eskatuko diegu, bai eta begiak estali ere. Horrela, jokalaria zer hots-paisaia imitatzen ari garen asmatu eta bertan sumatu ohi diren soinu

eta zaratak identifikatu beharko ditu. Beste aukera bat: eszena bat beste guztiak baino askoz bolumen altuagoan interpretatzea.

4. Jarduera amaitutakoan, puntu hauetaz hitz egin dezakegu:
 - Jokalarien arteko sumapen diferentziak eta bateratasunak.
 - Zein eszena izan diren identifikatzen errazena eta zergatik.
 - Zein soinu edo zarata nabarmentzen zen gehien eszena bakoitzean.
 - Zeintzuk diren arruntenak, zeinek molestatzeko gaituen eta zein dugun atsegin (zarata desatseginak iradokitzen dituzten eszenetan, zarata murriztu, desagerrarazi edo isolatzeko aukeraz ere mintza gaitzek).
 - Nolako zen lamina karrankaria egokitu zaion jokalariaren aurpegiera.
 - Zer gertatu den ozenkiago interpretatu dugun eszenan.
 - Hots-paisaiekin, zein aukeratu zenuke bertan bizitzeko?





Hots-paisaiak

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.

HELBURUAK

- Giro zaratatsuek pertsonen bizi-kalitatean duten ondorio kaltegarriari behatzea.

MATERIALAK

- ◆ Ikasgela lasai bat eta zaratatsu bat erakusten dituzten lamina edo argazkiak (CEIDAn aurki daitezke).
- ◆ Proiektorea.

Bi laminaz baliatuko gara: batean ikasgela lasai bat dago irudikaturik, eta bestean ikasgela zaratatsu bat. Laminak ikasleek eurek egin ditzakete, edo ikastaldearen argazkiak ere egin daitezke, zarata handia egiten eta isil-isilik dagoela.



▼ Irudiak handitu eta ikasgela zaratatsuari dagokiona aurkeztuko dugu. Ondoren, honako galderak egingo ditugu:

- Zer zarata entzuten dira ikasgela honetan?
- Nortzuk ari dira zarata handiena egiten?
- Ba al dago bertan gainerako ikaskideekin mintzatzeko aukerarik?
- Ba al dago lasai irakurtzerik?
- Eroso lan egin al daiteke bertan?
- Pozik al daude ikasgela horretakoak? Zergatik?
- Zer aldatu beharko litzateke ikasgelan horrenbesteko zaratarik izan ez dadin?

▼ Lehenengo irudiari buruzko iruzkinak egindakoan, bigarrena aurkeztu eta behatu egingo diogu, aurrekoan egin ditugun galderetako batzuk errepikatu bitartean.

▼ Amaitu ondoren, gure ikasgela zaratatsuaren ala lasaiaren antzekoa den galdetuko dugu. Zaratatsuaren antzekoagoa eguneko edo asteko zer unetan den ere iruzkin dezakegu, bai eta hori saihesteko irtenbidea ere.

▼ Azkenik, laminetan azaltzen diren pertsonaietako bati buruzko istorio bat idatzi edo konta dezaten eskatuko diegu.



Hots-kutsadura

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.

1. Idatzi atsegin dituzun sei soinu eta atsegin ez dituzun zaratak (beste sei).

■ Soinu atseginak

.....

.....

.....

■ Soinu desatseginak (zaratak)

.....

.....

.....

2. Erreparatu bost minutuz zeure ikasgelako soinuei. Bereiz itzazu ikasgelan bertan sortzen direnak eta kanpotik datozenak. Seinalatu gurutze batez desatseginak.

■ Ikasgelatik kanpokoak

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

■ Ikasgela barrukoak

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

HELBURUAK

- Inguruko zarata asko gogaikarriak izateaz gain, osasunarentzako kaltegarriak ere izan daitezkeela jabetzea.

3. Bateratze-lana: (4 edo 5 laguneko taldeak).

- Bat etorri al zarete soinu eta zaraten sailkapenean? Zeinetan?
- Ba al dago horiek sailkatzeko irizpide argirik?
- Bat etorri al zarete ikasgelatik kanpoko eta ikasgela barruko soinuen sailkapenean? Zeinetan?
- Gogaikarria al da zarata horietako baten bat? Baiezkoan, zer neurri hartu ahal dugu molesta ez gaitzan?
- Ikaskideren bat jendearen aurrean mintzatzen hasi eta besteren batek isildu barik segitzen badu, zer da: zarata gogaikarria, komunikazioa eragozten duen interferentzia ala begirune falta?


4. Zaraten eta euren ondoreen sailkapena.

■ Ordenatu soinuok zaratatsuenetik isilenera:

- Ihes-hodirik gabeko motozikleta
- Mailu pneumatikoa
- Irratia edo TB.
- Elkarrizketa ozena
- Bizitetxe-kale lasaia
- Rock kontzertua
- Ibilgailu mota guztien trafiko ugaria
- Makinak dituen fabrika baten barrualdea
- Garbigailua, ontzi-garbigailua
- Bulegoko zarata

Erkatu zeure sailkapena 9. orrialdean agertzen den zarata eskalarekin.

- Zeintzuk daude muga onargarriaren gainetik?
- Zer-nolako eragina izan dezakete pertsonengan?



Ikastetxeko hots-mapak

Gai honekin zerikusia duten arloak

- HIZKUNTZA.
- NATUR ZIENTZIAK.
- PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA.

HELBURUAK

- Inguruan izan ohi dugun zarata maila sumatzea.
- Etengabeko zaratak bizi-kalitatea galarazi eta osasunari eragiten diola ulertzea.

MATERIALAK

- ◆ Ikastetxeko planoak.
- ◆ Sonometroak.
- ◆ Kasetea eta zintak.
- ◆ Kartoi meheak.
- ◆ Errotulagailuak, margoak, etab.

Pausoz Pauso


1. Lehenengo eta behin, ikastetxeko zein alde (ikasgelak, korridoreak, jantokia, jolastokiak, etab.) eta zer unetan (eskolen hasieran, eskolen artean, atsedenaldian, etab.) aztertuko dugun zehaztuko dugu. Ondoren, ikasleak taldeka antolatu eta bakoitzari toki eta ordu bat esleituiko dizkiogu.
2. Jarduera hasteko, ikastetxeko toki ezberdinetako hots-paisaiak¹ erregistratzeko fitxa prestatuko dugu. Jarduera honen helburua, sumatu ohi ez ditugun hots-sorburuak identifikatzen ikastea da, soinuaren jarraitasuna, soinuaren intentsitatea, sorburu mota eta antzeko aldagaiak ere idatziz. Erregistro fitxex gain, beste batzuek grabaketak egin ditzakete aldi berean, erregistroak egiaztatzeko xedez.
3. Geroago, sonometroaz egingo da neurketa aurreko toki eta une berberetan, bost minutuz. Batez beste zaratari dagokion datua erabiliko dugu —sonometroek badute hori kalkulatzeko funtzio bat—.
4. Ikastegiko planoan, lortutako emaitzak islatuz joango gara.

Zarata maila bakoitzari kolore kode bat esleitu ahal diogu; adibidez:

- 55 eta 60 dezibelio bitarte
- 60 eta 65 dezibelio bitarte
- 65 eta 70 dezibelio bitarte
- 70 eta 75 dezibelio bitarte
- 75 eta 80 dezibelio bitarte
- 80 eta 85 dezibelio bitarte
- 85 dezibeliotik gora

Koloreez gain, alde bakoitzeko zarata-sorburu garrantzitsuenak ere irudika ditzakegu bertan.

5. Jarduera amaitzeko, zaratari buruzko erakusketa txiki bat antola dezakegu, datu guztiak bilduz (hots-mapak, zaratak osasunari dakarzkion ondorioei buruzko informazioa, ikastetxean zarata gogaikarriei buruz egiten dugun inkestaren emaitzak, etab.) eta zaratak murrizteko har ditzakegun neurriak aurkeztuz.



1. Hots-paisaia toki jakin batean eta denbora-tarte zehatz batez, gutxienez 5-20 minutu, sumatzen diren soinu eta zaraten behaketa sistematikoan datza.



Zarata aztertzen

Gai honekin zerikusia duten arloak

- HIZKUNTZA.
- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.

HELBURUAK

- Zaratak dakartzan ondorioak zehaztea: osasuna, alderdi psikologikoa, jardueretako interferentziak, etab.

MATERIALAK

- ◆ Fitxaren fotokopia.
- ◆ Sonometroa.

Estatu Batuetan Ingurugiroa Babesteko Agentziak (EPA) ondorioztatu duenaren arabera, 40 urtez egunero zarata maila iraunkor bat jasateak behin betiko entzumen galera ekar dezake.

Hona hemen datuak:

75 dezibelio	Egunean 8 orduz
78 dezibelio	Egunean 4 orduz
81 dezibelio	Egunean 2 orduz
84 dezibelio	Egunero ordubetez

Giro zaratatsuko biziguneetan, gure inguruko gehienak, guztiz frogatu da entzumen aputka-putka galtzeko arriskua. Gogoratu behar da, ezarritako mailak denboraren gainerakoan erabateko

isiltasuna dagoelako balizkoan oinarrituak direla.

Honako jarduera proposatzen dizuegu:

- Guztion artean lanaldi-eredu bat finkatuko duzue, ikastaldearen batez bestekoari dagokiona: zer jarduera egiten duzuen, non, noiz,... Neurtu sonometroaz lanaldi horretan zehar jasaten dituzuen zarata mailak (interesgarria litzateke inguru bakoitzeko sorburu garrantzitsuenak zehaztea. Lortzen dituzuen datuetan oinarrituz, ebatzi zenbat denboraz jasaten dituzuen zarata maila kaltegarri edota arriskutsuak, eta berorien sorburua.
- Ondoko taulako datuak eta 9. orrialdeko termometroa erabiliz, adierazi zarataren eraginpean egoteak entzumen galeraz gain ekar ditzakeen ondorioak.
- Bildu ondorioztapen guztiak txosten batean.

Zarata aztertzen

Non

Zarata eta hots desberdinen zerrenda

<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>

Zerk edo nork sortzen ditu hotsak eta zarata?

Zein da toki honetako hots edo zarata nagusia?



Zer-nolako eragina du zaratak komunikazioan?

MATERIALAK

- ◆ Sonometroa.
- ◆ Fitxaren fotokopiak.

Ahots tonu normalean mintzatzen garenean 55–65 dB-ko hots maila eragiten dugu 1 m-ra; tonua igoz gero, hots maila 65–75 dB-ra igotzen da; oihu eginez gero, 75–85 dB-ra iritsi ohi da.

Hartzaileak igorlearen potentziaren eta bien arteko distantziaren arabera jasotzen du soinua. Dena den, kontuan izan hondo-zarataren bat egoteak eragotzi egiten duela silaba batzuk

ulertzea; halaber, ulertzeko zailtasunak ahotsa igotzea dakar, bai eta horretarako esfortzua ere.

Ondoko taulan hondo-zarataren eta bi pertsonen arteko distantziaren arabera erabili behar den ahots maila azaltzen da. Adibidez, hondo-zarata 76 dB-koa bada, ahots tonu arruntean eta 0,15 metroko distantziara mintza gaitzke.

Adierazitako distantzia eta ahots mailetan elkarrizketa normal bat ahalbidetzen duten zarata mailak

SOLASKIDEEN ARTEKO DISTANTZIA (m)	INGURUKO ZARATA (dB)			
	ahots tonu normala	altu	oso altu	oihuka
0,15	76	82	88	94
0,3	70	76	82	88
0,6	64	70	76	82
0,9	60	66	72	78
1,2	58	64	70	76
1,5	56	62	68	74
1,8	54	60	66	72
3,6	48	54	60	66


Grafikoaren arabera:

- Inguruko zarata 88 dB-koa bada, zer ahots maila erabili behar da 0,15 metrotik mintzatzeko?
- Ahots tonu normalaz mintzatuz gero, zein da 3,6 metrotik elkar komunikatzea ahalbidetzen duen gehieneko zarata (dB-tan)?

Ikasgelako toki ezberdinetako zarata (presio akustikoaren maila) kalkulatzeko, sonometroa erabil dezakegu: arbetetik 1,2 metrora, arbetetik urruneneko tokian, ikasgelaren erdian, etab.

Neurri horiez baliatuz, marraztu ikasgelako planoan eta kokatu bertan hots mailak.

Grafiko honetan inguruko zarata eta solaskideen arteko distantziaren arteko erlazioa ikus daiteke.



- Zenbateko distantziara entzun daiteke arbeletik tonu normalaz hitz egiten ari den pertsona baten ahotsa?
- Ikasgelako guztiek uler dezakete arbeletik esaten dena?
- Oro har, egokia al da ikasgeletako zarata maila?
- Horrela ez bada, nola murriz liteke?

Zarataren ondore psikosozialak


Inguruko zaratak oroimen, arreta, erreflexu eta adimen asaldurak eragin ditzake. Zarata jasaten duten pertsonak urduritasun handiagoa agertzen dute jasaten ez dutenek baino. Zaratak sortutako estresak digestio-aparatuari ere eragin diezaiokete eta, halaber, zarata luzaroan jasateak areagotu egiten du nekea. Dena den, kalte garrantzitsuena entzumen galera da —entzumen zolitasunetik gorrerirantz igaroz joan daiteke—.

Animaliez baliatuz egindako ikerketa batzuek agerian uzten dutenez, hirietan jasaten ditugun antzeko mailetako hots-estimuluek eraginda tentsio arterialean sumatzen diren nahasteek hipertentsio kronikoa sortzen dute.

Egunero jasaten den inguruko zaratak eragindako entzumen galera definitzeko, **Socioacusia** berba sortu da.

Gizakien artean gehien hedatu den ondorioa ondoeza da; zaratak eragindako molestien hedadura eta tamaina inkesten bidez zehazten da. Informazio horretatik abiatuz, honako grafikoa sortu da:

Hots mailaren eta ondoeza agertu duten biztanle portzentajearen arteko erlazioa



Hirietako hots maila baliokideak 65 eta 75 dB artekoak dira. Horren arabera, biztanleriaren erdiak ondoez bizi sentitzen duela esan daiteke.

Ikasgelan neurtutako zarata mailak grafikokoekin erkatuta, ehuneko zenbat senti daiteke ondoezik zarataren erruz?

Zaratak pertsoneri eragiten dizkien ondoreak iruzkintzean:

- Ikastaldeko inor al dago ondoezik?
- Zer jardueratan jasaten duzue zeuen osasuna honda dezakeen zarata mailaren bat?
- Ba al da bateratasunik grafikoko datuen eta ikasgelan jasotakoaren artean?
- Azkenik, talde txikitik, ikasgelan ematen dugun denbora osasungarriago bihurtzeko, zarataren aurkako zer neurri har daitekeen erabakiko dugu.

8. atariko gorraren enigma

Alokairu eta salmenta prezioak izugarri ari dira igotzen hiri osoan. Hala ere, erdialdean dagoen Marraka kaleko pisuetako errentak geldirik daude aspalditik. Ezagut ditzagun 8.eko auzokoak. Eraikinaren kokalekua gorputz zein buru osasuna iraunarazi nahi duen ororen asmoetatik baztertzeko modukoa da, alde guztietatik: trafiko ugari eta etengabea, hainbat taberna hurbil, 3 pub jendetsu kale berean, ospitalerako igarobidea... Hau da, 8.ekoek eguneko 24 orduetan dute soinu banda (bozinak, sirenak, musika ezin ozenagoa, iskanbilak eta algarak); eta hori gutxi balitz, eurak dira auzoko zaratatsuenak. Haietako batek arazo larria du: hurrena audifono pare bat erosi beharko du.

Hona hemen Marraka kaleko 8.eko auzokoak. Aipatutako auzoko gorra non bizi den eta zer izen duen asmatu behar duzu.

1. esk.:

Ane eta Rafa. Anek insomnioa du; Rafak aspirinak hartzen ditu gosaltzeko, eta sarritan sumintzen da. Inguraldeetara lekualdatzeko aurrezten ari dira.

1. ezk.:

Garrasondo senar-emazteak. Pentsionistak. Emaztea ordu txikieta arte egoten da telebista piztuta eta aurikularrak belarrietan jarrita. Senarrak tapoiak erabiltzen ditu lotarako.

2. esk.:

Hotsederra familia. Alaba nagusia, Edurne, tronpeta jotzen ikasten dabil eta arratsalde osoa ematen du bere abesti gogokoenen notak aurkitu nahian; txikienak, Alexek, 15 urte ditu, eta dutxara joateko baino ez ditu walkmanak belarrietatik kentzen; institutoan ilargian bizi da, eta atsedenaldira iragartzen duen txirrin zalapartatsua entzuten denean, aulkian geldi geratzen da, norbaitek esnarazten duen arte.



2. ezk.

Joseba eta Manu. Unibertsitateko ikasleak dira, beren pisuaz itzel gozaten direnak. Haiiek bezala, gainerako lagun guztiek ere bertan aurkitu dute bertan euren goateketarako toki aproposena.

3. esk.:

Arantxa. Duela hilabete batzuk erosi zuen etxea. Oraindik ez da bertan bizi, baina, etxea berriztatzen ari den arotz eta igeltsero zaratatsu piloa bertan dabil, ordea.

3. ezk.:

Hutsik dago, salgai.

4. esk.:

Juan. Duela urtebete banandu zen, eta brikolajea bere bakardadeari aurre egiteko biderik onena dela konturatu da.

4. ezk.:

Hozkargi bikotea. Azkenik, lortu egin dute Benidormeko bidaia Inersokoekin. Emakumea nerbio krisialdia nozitzear ibili da, eta senarra auzokoaren etxeari su ematekotan.

EBAZPENA

Zer gertatzen zaie auzokoet? Alexek, guztietan gazteenak, audifonoak erabili beharko ditu bere inguruan esaten denaz jabetu nahi baldin badu, beste batzuek aspirinez ordetzen dituzte torradak; besteren batenzat, belarrietako tapoiak erabili ezlik, ezinezkoa da lo egitea; eta 3. solairuko ezkerreko pisuaren jabe gaixoak, salmenta prezioak beharantz segitu gero, duela hainbat urte pisuaren truke ordaindu zuena baino gutxiago eskatu beharko du.

Ebazpena: Alex da. Instituan egin zituen azterketa medikuan ondorioztatu zutenaz, aspalditik ilargian bizi izate hori gorri hazkorraren ondoriozkoa zen. Bere amak orain badaki zergatik ez zuen telefonoa inoiz hartzen, ez berehala erantzuten, zerbat galdetu gero. Beraz, audifonoek balio duten 120.000 pezeta ordainzteko kreditua eskatu beharrean dabil. Ez da, ez, txantxetako!

La huella del monstruo



Ramon Folch

Doctor en Biología.
Socioecólogo.

EL PROTAGONISTA DE "GODZILLA" —película, por otra parte, bastante inconsistente y prescindible— es un joven biólogo que estudia el supuesto aumento de tamaño de los animales sometidos a la acción de la radioactividad. Convocado con urgencia a una inspección sobre el terreno ante la aparición de una gigantesca especie desconocida, recibe el encargo de estudiar el rastro dejado por el animal. "Pero, ¿dónde está el rastro?", exclama desconcertado mientras mira a su alrededor. Entonces el plano se abre y muestra al muchacho hurgando a derecha e izquierda, metido dentro de una descomunal huella de varios metros de diámetro que él toma por un accidente del relieve. Un logrado efecto cinematográfico que da qué pensar, me parece.

Cuando la escala nos desborda, el umbral perceptivo se satura. Una huella de medio metro hubiera horrorizado a nuestro amigo; en cambio, el hombre no alcanzaba a ver la de cinco metros, tan metido estaba en su interior. De igual modo, tan grande es la verdadera magnitud del problema ambiental, que ni siquiera nos cabe en la mirada. Como el incremento del efecto invernadero nos desborda, tendemos a ignorarlo y a torcer el gesto ante las menudencias: ese río sucio, aquel paisaje alterado... En definitiva, se nos pasa por alto la huella monstruosa en que nos hallamos sumidos. El objetivo de la educación ambiental es abrir el plano y dar la escala.

Todo empezó cuando, años atrás, comenzó la discusión de si educar *sobre*, *en* o *para* el ambiente. O sea, si transmitir conocimientos ambientales, si usar el ambiente como marco educativo o si desencadenar actitudes positivas hacia el entorno. En su momento, la discusión pudo parecer bizantina, pero en realidad se trataba de un asunto capital. La prueba es que quienes se limitaron a transmitir informaciones ambientales o a enseñar literatura bajo los árboles no dieron con ninguna clave significativa de lo que hoy es el núcleo del problema: el serio deterioro profundo del escenario en que se desenvuelven nuestras actividades, empezando por las productivas.

Un cacique del Mato Grosso sentenció en cierta ocasión: "Lo que ustedes —los blancos— no entienden es que cuando muera el último pez, desaparezca el último bosque y se extinga el último río, no podrán comerse el dinero". La educación ambiental tiene por objetivo evitar que ocurran estas cosas. Dicho así, parece un canto al buen salvaje y a la vida retirada, un *beatus ille* dedicado a una Arcadia imaginaria que seguramente nunca llegó a existir. No es eso. Bien al contrario, no poder comerse el dinero es una bella metáfora del error anamórfico en que estamos incurriendo: confundir el significativo con el significado. La economía trasciende holgadamente el monetarismo y los estadillos contables..

La marcha de la economía no viene reflejada por el PIB ni por el IPC, y mucho menos por el comportamiento del mercado bursátil. Donde el proceso económico encuentra su

verdadera expresión es en el estado del ambiente. Los sistemas productivos ineficientes externalizan disfunciones para poder cerrar los balances y por ello expolían, malversan y contaminan. La eficiencia socioeconómica conlleva capacidad internalizadora, de modo que solicita poco del ambiente en términos de materias primas y vierte aún menos en términos de desechos. En un mundo que tiende a la globalización —de momento no pasa de la mundialización de los mercados, que es otra cosa, pero en fin...— sólo progresarán sin conflicto quienes minimicen sus externalizaciones. Dicho de otro modo: sólo serán sanamente competitivos quienes dispongan de un ambiente saludable. No porque la competitividad les venga de ese ambiente, sino porque la calidad ambiental reflejará su verdadero nivel de eficiencia y competitividad legítima.

Visto así, el manido y falso contencioso entre ambiente y desarrollo se resuelve solo. El desarrollo grosero —o sea, contra y a expensas del ambiente en que viven los desarrollados— no tiene cabida en un mundo de verdad globalizado, ya que un tal desarrollo espúreo se basa en la existencia de "patios traseros" en donde acumular vergüenzas: en la globalidad no hay exterior ocultable, todo es interior. La manera de compatibilizar el maloliente retrete con la vivienda lujosa es inventar el cuarto de baño y ponerlo en el centro de la casa, no mantener la letrina alejada en el cobertizo del patio, porque en un mundo globalizado, el patio se habrá convertido en la casa de otro alguien.

La huella, imperceptible de tan enorme, es la mundialización de algunos mercados que dificulta la globalización de la estrategia socioambiental. La educación ambiental es la destreza para ver esa huella en su total dimensión, que, como digo, es fundamentalmente económica, no meramente contable. O sea socioambiental. Es una cuestión económica, por productiva, que se expresa ambientalmente. La ecología es otra cosa, y por eso hay que dejarla en paz y que siga con sus estudios. El conflicto está en el ambiente y la solución en un nuevo orden económico y productivo, es decir en un nuevo paradigma y en unos nuevos valores, lo que se ha dado en llamar la cultura de la sostenibilidad. Justamente por eso se trata de un tema educativo. La didáctica y la pedagogía son la cara técnica del asunto, pero el meollo es ideológico.

La educación ambiental es la formación para la sostenibilidad. La educación ambiental se interesa por la biodiversidad, pero también por las pateras, porque ponen de manifiesto desequilibrios demográficos, inequidades socioambientales e inasumibles deudas externas que emanan de asimetrías en el control, transformación y apropiación de los valores añadidos de los recursos. Todo ello es mucho más, desde luego, que la didáctica de las ciencias naturales. Y es que, más allá de necesarias habilidades pedagógicas, la educación ambiental conlleva un posicionamiento ideológico. Exponerlo con contundencia, también. Por eso lo hago.

Udan ere ingurugiroaren alde



Auzolandegiak: ingurunea ezagutu eta hobetzeko bidea

URTERO EUSKO JAULARITZAKO GAZTERIA ZUZENDARITZAK gazteei zuzendutako deialdia egiten du. Aspaldi gauzatzen diren ekintza hauetariko askotan ingurugiroa da ardatza. Bai EAeko bai Estatuko zein atzerriko zenbait esparru naturalen zaharberritze, garbitze edo berreskuratzeko lanak borondatez egiten dira, besteak beste. Naturaren alde aritzeaz gain ekintza hauetan parte hartzen dutenei beste aukera batzuk ere eskaintzen zaizkie: beste komunitateetako gazteekin erlazionatu, hizkuntza atzeritarrak praktikatu edo leku bereziak eta beren ohiturak ezagutzea.

Euskal Herrian, besteak beste, egingo diren artean honako hauek daude: Urbasako Parke Naturelean, *Natur Ingurugune eta Ondarezkoaren berreskuratzea*; Gorbeia Parke Naturelean, *Bidexka ekologikoa oneratu eta zaharberritzea*. Argibide gehiago eskuratzeko jo ezazue zuen herriko gazteria bulegora edo Eusko Jaularitzako Ordezkaritzara.

KULTUR UNITATEEN TELEFONOAK

Arabakoa	945 019501
Bizkaikoa	944 031652
Gipuzkoakoa	943 022966

Udalekuak eta udagaztea Euskadiko foru aldundiaren eskutik

URTERO HIRU FORU ALDUNDIEK udako kanpamenduak antolatzen dituzte. 7-20 urte bitartekoentzako udako kanpamenduak daude leku diferenteetan: Gorliz eta Orduñan (Bizkaia), Bidarrain (Iparralde) edo Guara Aranean (Huesca), beste askoren artean. Horietan natur ingurunea ezagutu zein zaintzeko aukera eskaintzen da, eta baita animalia espezie bitxiak ezagutzeko ere.

Araba	945 18 19 88
Bizkaia	944 20 77 00
Gipuzkoa	943 48 21 11

Beste udaleku batzuk

EUSKAL HERRIKO NATURGUNE egokietan kokatuta, udalekuak antolatzen dituzte zenbait elkarte eta erakundek. Udan zehar izaten dira, uztailean zein abuztuan, eta txanda diferenteetan; eskaintza 5 urtetik 18ra bitartekoa da. Naturekin harremanetan egoteaz gain zenbait ekintza ekologiko egiteko aukera ematen diete gazteei, hala nola: eskulanak, erlegintza, zur lanketa, energia berriztagarriak, baratze lanak, etab. Bestalde abenturazko kirolak nahiz mendiko txangoak ere egin daitezke. Parte hartzaileak hizkuntza diferenteetan mintza daitezke: euskara eta ingelesa, edo euskara eta gaztelania.

Argibide gehiago lortzeko, deitu gazteen informazio eta dokumentazio zentroetara.

Araba	Probintzia plaza, 13. 01001 Vitoria-Gasteiz Tfnoa: 945 18 17 00 Posta-e: informazioa@jet.es
Bizkaia	Diputazio, 7-baxua. 48008 Bilbao Tfnoa: 944 20 77 79 Posta-e: ctidj@bizkaia.net
Gipuzkoa	Txuri Urdin Izotz Jauregia. Anoeta pasealekua, 28. 20214 Donostia Tfnoa: 943 47 26 17 Posta-e: ctij2@gazteria.gipuzkoa.net



Urdaibaiko galtzagorriak: Urdaibaiko boluntarioen plataforma

“URDAIBAICO GALTZAGORRIAK” BOLUNTARIOEN PLATAFORMA Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako hainbat talderen ekimena da. Leku horren baloreak jagon eta bere denbora eta kemena horrelako helburuen alde eman nahi dituen ororen elkargunea da.

Plataforman, egiten dakitena konpartitu eta urtean zehar gauzatzeko proiektuak proposatzen dituzte taldeek nahiz banakoek.

Aurten honako proiektuak garatzen ari dira:

- Ibilaldi autogidatua Urdaibaiko paduren ingurunean (irail–urrirako aurreikusia).
- Lagako hondartzako duna sistemak babestea (maiatza–ekaina).
- Otarra haztegi baten leheneratzea Busturian (2001eko 1. seihilekorako aurreikusia).
- Boluntarioen aldizkaria (abian da).

Ekimen horietan parte hartzeko, 946 25 71 25 telefono zenbakira deitu edo Plataformak Gernikako lehengo epaitegietan duen lokalera hurbil zaitezketen (Foru Plaza z/g. 48300 GERNIKALUMO). Hilaren lehenengo eta azken astelehenetan.



Relatos de la tierra y el entorno

Zenbait egile

Ed. Popular - Unesco. Madril, 1998.

LURRA, GIZAKIA ETA INGURUNEA dira bilduma honetako istorioen oinarria. Hainbat egilek idatzitako eta hainbat lurraldetan kokaturiko istorioak dira: *El gigantón cabelludo* kondaira ekuador-tarrak nekazarien, beren uzten eta madarikazioen arteko erlazioa islatzen du; Pablo Zapataren *Patalarga, la cigüeña* izenekoak zikoinaren tristura azaltzen digu; Fernando Ainsa-ren *Las palomas de Rodrigo* lanak helduen suntsipen eta hoztasunarekin alderatzen ditu haur baten elkertasuna eta samurtasuna...

Bideoklubean

Antz (Hormigaz)

(Estatu Batuak, 1998). DreamWorks-ek, Spielberg-en produkzio etxeak, Z-4195 aurkezten du. Z inurri langile soil bat da, milaka milioiren arteko bat, beste guztien berdina izan nahi ez duena. Aukera gutxi du Bala printzesa ederra maiteminarazteko, baina Zk, koloniako kasta sistema hertsuari muzin eginez, berarengana hurbilduko da. Bere lagun onenaren laguntza, Weaver inurri soldadua, izango du ataza horretan. Patuaren nahikariz, Z ustekabeko heroi bihurtzen da eta zapuztu egiten ditu Mandible jeneralaren planak, kolonia suntsitu eta bere nahierara berretzean dautzanak.

Puntu berdea

ASIER LEGARRETA LEGARRETA. Mungiako 27 urteko bertsolariak zarata gaitzat hartuta ekarri dizkigu bere bertsoak. Mungiarra Taket bertsolaritza elkartearen arduraduna da eta baita *Mungia euskaldunduz* taldeko kidea ere; elkarte honek Nontzebarri aldizkaria argitaratzen du, hain zuzen. Asier aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartzen ari da. Hona hemen berak idatzitako bertsoak:

*Esan didate “zarata” gaitzat
hartuz bertsoak idatzi,
logelan idatz–mahaian
horretan egin naiz hasi.*

*Leiho biak sarratu,
ezin naiz konzentratu,
zarata baita nagusi.*

*Gustoko inork ez ditun hotsak
entzun gabe ezin utzi.*

*«Zarattetara —jendeak dio—
ni ohitu naiz azkenean».*

*Ez da ulertzen kutsadura bat
dugula azken finean.*

*Haurtzarotik hasita
zahartzarora iritsita
gaude era berdinean.*

*Lasai biziko gara munduan
zaratarik ez denean.*

Doinua: “Iparragirre habila dela”.

Por una comunicación sin interferencias

¿QUÉ SE PUEDE HACER EN CASA para tratar de evitar ruidos molestos, que de una manera u otra dificultan la comunicación entre *padres e hijos*? ¿Qué podemos cambiar de nuestros hábitos para que podamos entendernos sin interferencias?

De esto y de otros asuntos referentes al ruido nos ha hablado **Angel Azpiazu**, profesor de la Escuela de Zurbarán, donde el año pasado llevaron a cabo el proyecto *El Ruido en la escuela*. Algunas de las prácticas que se hicieron en la escuela son extensibles al entorno familiar; de esta manera proyectos como éste tendrán una continuidad fuera de la escuela.

Grabaciones sorpresa

En la medida que sea posible, sería muy interesante que quienes piensen que sus hijos/as hablan excesivamente alto o chillan innecesariamente, grabasen sorpresivamente fragmentos de conversaciones, para después escucharlas juntos y tratar de que sean conscientes del ruido que meten.

Uso restringido de los walkmans

Cada vez es más normal ver a jóvenes todo el día enchufados a estos aparatos; en ocasiones no se los quitan ni en clase y, tampoco, cuando sus padres y madres se dirigen a ellos. Les podemos proponer que escuchen música en momentos determinados y, por

supuesto, se quiten los auriculares cuando queremos hablarles.

Notas y cartelitos por la casa

Ya que a menudo avisándoles de que no hagan esto o lo otro no se consigue nada, sería más práctico escribir avisos recordando cosas como: *no des portazos, no subas demasiado el volumen del televisor, no pongas muy alta la música después de las once*, etc.

Respeto del turno en las conversaciones

No sólo en casa, también en otros muchos espacios, parece que nos hemos acostumbrado a hablar todos a la vez. Sería muy útil concienciarnos de esto para que intervengamos después de haber escuchado a la otra persona.

Angel Azpiazu también nos contó que tras finalizar el proyecto se envió una encuesta a las familias, algunas de las cuales demandaban más información respecto a las actividades de este tipo que se realizan en la escuela y, sobre todo, creían conveniente que desde las mismas instituciones, por ejemplo desde el Ayuntamiento, se ofrecieran charlas informativas en los Centros Cívicos o entre las asociaciones vecinales. De esta manera las campañas medioambientales serían más efectivas que la información de los folletos que llegan a nuestros buzones.



Cuéntale un cuento

DOS TEXTOS diferentes donde el ruido y el silencio se manifiestan de distinta manera.

Muy recomendables para retomar ese olvidado espacio de la lectura en cualquier rincón de casa, alejado de los ruidos externos.



«¡Que ruidoso, Sinforoso!»
Natalie Louis-Lucas.
Anaya, Madrid, 1991.

Sinforoso, el elefante ruidoso, es un escándalo andante: espanta en la escuela si estornuda, deshoja los árboles si canta, las lámparas se caen con su risa, y su amiga, más discreta, le abandona...



«Hablemos de ruidos y silencios», María Martínez i Vendrell; Roser Capdevila.
Destino, Barcelona, 1990.

La protagonista de este libro no siente el ruido: ve gesticular y moverse a su familia sin oír una palabra. En su mundo silencioso, hay otras vías para hacerse entender: el dibujo, las miradas...



Peñas Negras Ingurugiro Interpretazioko Zentroa

PEÑAS NEGRAS INGURUGIROAREN INTERPRETAZIO ZENTROA Trianoko mendietan dago, Bizkaiko Urtuella udalerrian. Antzina meategi gunea zen hau paisaiaren aniztasun itzelari behatzeko pribilegiozko toki estrategikoa da, gizakiak inguruneari eragin dizkion aldaketa sakonak ikusteko aukera ematen duena.

Didaktika eta saiakera zentro honen helburua bisitariak sentikortzea da, ingurugiroarekiko kontzientzia areagotu eta ingurugiro arazoez jabetu gaitzen lortzearen, beraren babesa eta hobekuntza erdiesteko baloreen gainean heziz. Horretarako, eskola-ziklo ezberdinetarako erakusketak, tailerrak, gidariak eta beste hainbat baliabide eskaintzen dizkie ikastegiei eta, oro har, herritar guztiei.

Peñas Negras eta La Arboledan zehar gidari batekin egiten diren bisitaldiek jakintza-arlo anitz lantzea ahalbidetzen dute, Geologia, Botanika, Ekologia, Ekonomi eta Giza Geografia, Historia eta Hirigintza arloetako ezagupenak tartekatuz.

Hori dena egun bateko bisitaldian



sartzen da. Bertan, gidek inguruaren osoko ikuspegia eskaintzen dute, XIX. mendearen amaieran hasi zen mea-ustiakuntza jorian eta, berorren ondorioz, ekosistemek jasan duten aldakuntzan oinarrituz.

Alde horretako meatzaritza utzi izanari eta naturaren ekintzari esker, bat-bateko berreratze-prozesu gel-do bat gertatuz joan da. Landare eta belarrek berreskuratu egin dute beren lurraldea, eta meatzaritzak aire zabalean egindako indusketa sakonetan lakuak daude gaur egun, babestu beharreko jostaketa-gune eder bat eraturik.

**«PEÑAS NEGRAS» INGURUGIRO
INTERPRETAZIOZKO ZENTROA**
58 Posta kutxa. 48530 Ortuella
© 946 33 80 97

Sonoteka

Oso dibertigarria izan daiteke geure kasa irrati edo telebista saio bat grabatzea edo antzezlari xume bat antolatzea, soinu-efektuak ere erabiliz: azokako zalaparta, trafikoa, ibaiak, haizea, kristal apurtuak, txoriak, ... Goza gaitzen soinuaz, zarata bihurtu gabe!

Efectos sonoros. 16. CD: Desastres. BBC records & tapes. Dial Discos S.A., 1991. CD honek hondamen egoerekin zerikusia duten 65 soinu-efektu biltzen ditu. Beste CD batzuetan bestelako gaiak lantzen dira.

Sonoteca. Espacios públicos, muchedumbre. Bataille J.P. Audivis distribution, 1994. Toki publikoetan grabatutako 71 soinu-lagin eskaintzen ditu. Beste CDetan bestelako giro-tze soinuak entzun daitezke.


Guía sonora de las aves de España. (3 CD). Matheu E. Alosa-Sittelle, 1990. Tresna baliagarria izan daiteke hegaztiak euren kantuen bitartez identifikatzeko.

Baliabideak Interneten



www.lhh.org/noise

Noise Center of the League-ren web guneak zarata kutsadura gisa tratatzen duten legeak, egunkarietako artikulua eta dokumentazioa aurkezten ditu ingelesez. Atal batean zaratak haurren duen eragina azaltzen da, eta beste atal bat osasunaren-tzako arriskutsuak izan daitezkeen jostailuei buruzkoa da.



www.ia.csic.es


CSIC-Zientzi Ikerkuntzarako Kontseilu Goreneko Akustika Institutuaren web guneak inguruneko akustikari buruzko materiala eskaintzen du, bai eta argitalpen eta jardue-
ra eguneratuak ere.

«Irakaslearen gaixotasuna» dibanean

ENTZUMEN GALERA, TAKIKARDIAK edo loaren asaldurak dira gehiegizko zaratak osasunari ekartzen dizkion ondorioetako batzuk. Horiez gain, gogorrago bihurtzen du irakasleen lanaldia; murritzuta egiten du ikasleen arreta; etenaldiak eta ulertzeko arazoak eragiten ditu, besteak beste, eta horien ondorioz, ahots tonua igo beharra, afonia, haserre, buruko mina, urduritasuna, oldarkortasuna edo nekea ere.

Gehiegizko tentsio-une horiek *irakaslearen gaixotasuna* deritzana ekar dezaketen ahots-hiperfuntzioa eragin dezakete: noduluak, polipoak, ahots-funtzioen asaldurak,... Alderdi fisikoari dagokionez, foniatria, logopedia edo otorrinolaringologiako adituek zuzentzen dituzte ahots-gaitz horiek.

Juan Carlos Garaizabalek, mintzamenaren terapeutak, mintzamenaren alderdi emozionaletik ekiten dio arazoari. *Ahotsari gertatzen zaiona egoera psikiko, emozional, intelektual zein espiritual eta aldartearen isla da, eta hortixe zuzendu behar da, diosku.*



Egoera menpean hartu

Garaizabalek ondorengo aholkuak ematen dizkigu eskolan komunikazioa erraztu eta gehiegizko zarata saihesten duen elkarbizitza giro osasungarriagoa lortzeko:

- Nork bere buruari entzutea. Horrek arnasa hartzeko beta ematen du, estrategia aldatzeko, eta indartu egiten du mintzo denaren eta entzuten duenaren segurtasuna.
- Taldeari behatu eta entzuteak,aldi berean beraren egoera emozionala neurtuz, denbora eskaintzen zaiela sentiarazten die guztiei. Horrez gain, oso garrantzitsua da komunikazioaren norabidea: ez dugu ez geure ahotsa, ez geure begirada arbelera zuzendu behar, horrek ulermena eragotzi eta tonua igoarazi egiten baitu.
- Ez ibili haizearen kontra. Geure iritzia oihuka gailenarazi nahi badugu, ezarriak nozituko ditu ondorioak. Ez ibili lehia ikasgela barruko nahiz kanpoko zaraten kontra (jantokiko edo jolastokiko oihuak, trafikoa, hegazkinak,...) Hobe da horiek desagertu arte itxaron eta geroago segitzea.
- Ikasleen arretari eusteko, erabili zuhurtzia: aholpeka mintzatu edo, baita, isildu. Txaloak, klaskak edo keinu nabarmenak ere erabil daitezke txantxa gisa, arreta erakartzeko; bai eta isiltasuna edo baretasuna islatzen duten kartelak eta marrazkiak ere.
- Bestalde, komeni da gelaren akustika ahalik eta ondoen eza-gutzea. Galdetu ikasleei nondik entzuten den hobekien, taldearekin nahasteko beldurra gaintuz. Gainera, mugimenduak hurbildu egiten du, komunikazioa pizteaz gain.



Ikasgelan zalaparta hasten denean

Lehen Hezkuntzako ikasleekin

Taldeakide guztien artean, ikasgelan saihestu egin behar diren zaratak eragiten dituzten ekintzen dekalogoia presta dezakete: esaterako, aulkia eta mahaiak altxatu beharrean, arrastaka mugitzea; oihu egitea, etab. Zerrenda prestatu ondoren, toki ikusgarri batean iltza daiteke, sarrerako atean edo arbelean kasu. Ikasgelan marmarak areagotzen direnean, irakasleak aurretiaz pentsatutako jarrera bat hartuko du, harik eta ikasleak isiltzen diren arte. Jarrera horietako bat aulkian besoak bildurik jesarri eta isilik geratzea izan daiteke, ikasleak gertatzen denaz konturatu eta haiek ere isildu arte.

Eskola une batez gerazita, sortutako isilunearen eta irakasleak hartutako jarraitaren bidez, ikastaldea zarataz jabetzea da helburua. Isiluneaz oharitzen den azkenak guztien arreta bere gain sentituko du, eta berriro gerta ez dadin saiaturiko da.

Bigarren Hezkuntzako ikasleekin

Aurreko ideia bera aplika daiteke, ikasgelan ekidin behar diren ekintzen dekalogoia prestatuz, eta horrekin batera, aldizkari honetan agertzen dena bezalako zarata termometro baten fotokopia ipiniz.

Termometroak giza ahotsak sortzen dituen dezibelioak eta kutsadura akustiko handiaren ondorioak gogoraraziko dizkie. Jarrera jakin bat hartu ordez, beste edozein neurri har daiteke hezkuntza maila hautan, betiere taldeak alde aurretik onartu baldin badu. Ikasgelan zarata handiena egiten duten kideak bertako zarata murrizteko zenbait zeregin ez arduratzea izan daiteke aukera bat: adibidez, aulkia eta mahaien hanketan zarata arintzeko paper edo kartoizko takoak ipintzeaz, edo ate eta leihoak ondo ixteaz, kanpoko zaratatik isolatzeke.

Kastortxoren abenturak Txotxongilo antzerkia bideoan

SOL Y TIERRA txotxongilo bidezko antzerki talde bat da, ingurugiroari loturiko gaiei buruzko bideo produkzio jostagarri bat egin duena. Ur aurrezpena, zaborren sailkapena eta garapen jasagarria dira tratatzen dituzten gaietako batzuk. Beraien lanetan *Kastortxoren abenturak* izenekoa nabarmentzen da, Hezkuntza Ministerioaren lankidetzaz ekoiztua. Haurrei zuzenduriko antzezlan da, basoko animaliak protagonista dituen. «Zarata gehiagi» izenburuko kapituluak (12 minutukoa) hots-kutsadurari buruzkoa da.

Zinta horiek CEIDAn eskura daitezke, euskaraz zein erdaraz.



Gainera, *Sol y Tierra* taldeak ikusleen sormenezko parte-hartzea bilatzen du, abesti eta dantzen bidez, zuzenean ematen dituen txotxongilo antzezlanetan. Beraren gidioetan, besteak beste, indarkeriaren aurkako eta elkartasuna, begirune ekologikoa eta talde-joeraren aldeko pizgarri nabariak islatzen dira. Txotxongilo berritzaileak dira, balore positiboak landu eta gidoi dibertigarriak aurkezten dituztenak.

SOL Y TIERRA

C/ Mayor, 9

28170 Valdepiélagos. MADRID

© 918 41 60 45

Zarata

Juan Carlos López, Idoia Tuduri eta Aitor Zejuela.

El entorno y yo / Ingurunea eta biok (3). Eurobideoa. Donostia, 1995.

DONOSTIAN GRABATUTAKO bideo hau abiapuntu egokia da zarata hots-kutsadura dela jabetu eta beraren ezagutza eta sorburuen berri izateko. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen eta Bigarren Zikloetarako gomendatzen da.

Hainbat adibideren bitartez identifikatzen dira zarata motak (trafikoa, elkarrizketak, etab.) eta sonometro bidezko neurketen emaitza. Horrez gain, kaleko eta eskolako zarata murrizteko ekintzak ere proposatzen ditu. CEIDAn bideo honen euskarazko zein erdarazko bertsioa eskura daiteke, bai eta berorren osagarri gisa erantsirik fitxa didaktikoa ere.



Material didaktikoak

- **Ondas, sonido y ruido.** Miguel Ibáñez L. et al. Sugerencias curriculares 2. Universidad de Zaragoza, 1993. Uhinak, soinuaren gaineko aplikazioa eta zaratak. Alderdi fisikoak, biologikoak eta horien aplikazioa lantzen ditu. DBHko Lehen Ziklorako Unitate didaktikoa. Zientziak.
- **Noise. Reading, questions and optional survey on the problem of noise pollution.** Science & technology in society. SATIS nº 407. Zarataren eta soinuaren arteko diferentziak, sorburuak, osasunean duten eragina eta murrizteko erak ditu mintzagai, eta eskola zein zabalpartatsua den ere aurkezten du. DBHkoei zuzenduriko ingelesezko unitate didaktikoa.
- **Eskola Ekologikoa** material bilduma. Eskola ekologikoari buruzko kartela. Eusko Jaurlaritzak. Vitoria-Gasteiz. 1993.

Zarata Eskolan/El ruido en la escuela. Eskola ekologikoari lotutako gaiei buruzko liburuxken bilduma, 8.zkia. CEIDA.

Zarata lehen garaiko IHITZAn

Lehen garaiko IHITZA aldizkarian zaratari buruz azalduetako beste erreferentzia batzuk:

27. zk. **Zarataren azterketaz** 200. or.

29. zk. **Atmósferas: un juego para la sensibilización y percepción del paisaje sonoro.** 211. or.

Gehiago jakiteko

Ildo beretik doa CEIA (Centre d'Estudis d'Informació Ambiental) Ingurugiroari buruzko Informazio Azterlanetarako Zentroaren 19. buletina (1999ko iraila). Katalanezkoa zein gaztelaniazkoa eskura daiteke. <http://www.ictnet.es/terrabit>.

LIBURUAK

Esos insoportables sonidos. Esa horrible ciencia

Arnold N.

Molino argitaletxea.artzelona, 1998.

DBHko 2. ziklotik aurrera irakurtzeko egokia. Datu fitxa zehatzak, irakasleentzako test zorrotzak eta marrazkiak biltzen dituela, oso era jostagarrian aurkezten ditu soinuari eta zaratari buruzko oinarriko kontzeptuak eta gertaera bitxiak.



El ruido

Grazia Nidasio.

Los Niños y la Ecología bilduma.

Ediciones Junior S.A.artzelona, 1992.

Komiki taxuaz baliatuz lantzen du zarata.

Lehen Hezkuntzako Hirugarren Ziklorako.

Zarata zoroak

Garrido, N.

Ipuin ekologikoen bilduma.

Tartalo argitaletxea.artzelona, 1997.

Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako ipuin egokia. Unai hirira joan behar du bere taldeko neska-mutilen kasetea konpontzeko ordezkotako piezen bila. Hirira heltzean ezusteko handia hartuko du bertan zaratak eragin dituen arazoak direla eta. Euskaraz.

Lanbide Heziketarako unitate didaktikoak

Unidades didácticas para Formación Profesional



- Sukaldaritza eta ingurugiroa
Cocina y medio ambiente
- Elektrizitatea eta ingurugiroa
Electricidad y medio ambiente
- Eraikuntza eta ingurugiroa
Construcción y medio ambiente
- Informatika-sistemak eta ingurugiroa
Sistemas informáticos y medio ambiente
- Poluziorik gabeko azterketa
Analizar sin contaminar
- Fabrikazio mekanikoa eta ingurugiroa
Fabricación mecánica y medio ambiente

UNITATE DIDAKTIKOAK EGIN BIDEAN UNIDADES DIDÁCTICAS EN PREPARACIÓN

- Arreta sanitarioa eta ingurugiroa
Atención sanitaria y medio ambiente
- Automozioa eta ingurugiroa
Automoción y medio ambiente
- Ile-apainketa eta ingurugiroa
Peluquería y medio ambiente
- Elikadura-industria eta ingurugiroa
Industria alimentaria y medio ambiente
- Administrazioa eta ingurugiroa
Administración y medio ambiente
- Nekazaritza-jarduerak eta ingurugiroa
Actividades agrarias y medio ambiente



www.euskadi.net/ihitza

IHITZA osoa... eta zerbait gehiago
Todo IHITZA... y algo más



Interneten IHITZaren eduki guztiak baitauzkazu, gatzelaniaz zein euskaraz... eta zerbait gehiago. Datu gehiago, esperientzia gehiago, «link» gehiago, bibliografia gehiago. Konekta ezazu! IHITZarekin harremanetan jartzeko eta bertan harpidea egiteko biderik azkarrena.

Porque en internet tienes todos los contenidos de IHITZA en euskera y castellano... y algo más. Más datos, más experiencias, más «links», más bibliografía. ¡Conéctate! Es la forma más rápida de contactar con IHITZA... y de suscribirse.

CEIDA ren egoitza berria Gasteizen

Nueva sede de **CEIDA** en Vitoria-Gasteiz

Baiona, 56-58 • 01010 VITORIA-GASTEIZ



CEIDA ingurugiro heziketa zure eskura

■ BILBAO
Ondarroa, 2
48004 Bilbao
• 944 11 49 99

■ URDAIBAI
Udetxea Jauregia
48300 Gernika-Lumo
• 946 25 71 25

■ DONOSTIA
Basotxiki, 5
20015 Donostia
• 943 32 18 59

■ LEGAZPI
Brinkola, z/g
20220 Legazpi
• 943 73 16 97

■ VITORIA-GASTEIZ
Baiona, 56-58
01010 Vitoria-Gasteiz
• 945 17 90 30

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN